Astigarragako Udala
Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

# EZ OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2010IPLE0003
**Eguna:** 2010-02-25
**Ordua:** 13:00-13:30
**Tokia:** Areto nagusia

**Bertaratuak**

| | |
|---|---|
| - Bixente Arrizabalaga Bengoetxea | ALKARBIDE |
| - Juan Joxe Uranga Mendiburu | ALKARBIDE |
| - Imanol Lizarralde Marín | ALKARBIDE |
| - Eloy Bazan Bazan | ALKARBIDE |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ/PNV |
| - Mª Jesús Arruabarrena Izagirre | EAJ/PNV |
| - Ramón Aranzasti Loyarte | EAJ/PNV |
| - Carlos de la Peña Hornés | EB-B |
| - David Franco Chavale | EB-B |
| - Jose Angel Sanchez Gallardo | PSE-EE |
| - Jose Manuel Herzog de Bustos | PP |

**Bertaratu ez direnak**

-

**Idazkaria**

- Xabin Olaizola Lasa

**Aztergaiak**

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **EB-B, PSE-EE eta PP taldeek aurkezturiko idatzia. Garraio hiri proiektua** | **1** | Escrito presentado por EB-B, PSE-EE y PP. Proyecto ciudad del transporte |

**Esan-eginak eta erabakiak**

**1. <u>EB-B, PSE-EE eta PP taldeek aurkezturiko idatzia. Garraio hiri proiektua</u>**

**1. <u>Escrito presentado por EB-B, PSE-EE, y PP. Proyecto ciudad del transporte</u>**

Alkateak adierazi du otsailaren 3an oposizioko taldeen ordezkariek sinatutako idazkia jaso zuela eta idazki horretan ezohiko bilkura bat egitea eskatzen zutela Foru Aldundiak Astigarragan ezarri nahi duen "garraio hiria" deituriko proiektuari buruz eztabaidatzeko. Eskari horri erantzuteko, orain egiten ari garen osoko bilkurarako deialdia egin dut Alkate gisa. Bestalde, Alkateak esan du atzo Bozeramaileen Batzordea egin zela talde guztien iritzia ezagutzeko eta bertan talde guztien botoekin (abstenitu zen EB-Bkoekin izan ezik) honako hau onartu zutela: "ASTIGARRAGAKO UDALEKO BOZERAMAILE BATZORDEAN AINTZAT HARTZEKO ERABAKI PROPOSAMENA". Proposamen horretan honako erabaki hauek biltzen dira:

1. Foru Aldundiari eskatzea Astigarragako agroaldearen birkokapena otsailaren 7an Batzar Nagusietan adierazitako terminoetan egiteko.
2. Foru Aldundiari eskatzea Astigarragako Plan Orokorraren aldaketa puntuala hasteko, aparkalekua eta horretatik eratorritako erabileraz gain, eremu horri udalerriarentzat interesgarriak izan daitezkeen bestelako erabilerak eman ahal izateko, bi administrazioen arteko negoziazio-esparruan.
3. Erabakia hurrengo otsailaren 25ean egingo den osoko bilkuran aurkeztea, onar dadin.

El Alcalde indica que con fecha 3 de febrero recibió escrito firmado por los representantes de los grupos de la oposición solicitando un pleno extraordinario para tratar en relación a la llamada "ciudad del transporte" que Diputación quiere implantar en Astigarraga. Esta petición ha sido atendida y como Alcalde he convocado el Pleno extraordinario que estamos celebrando. Indica que previamente ayer se celebró la Junta de Portavoces para conocer la opinión de todos los grupos, y señala que en dicha Junta con los votos de todos los grupos, salvo EB-B que se abstuvo, se aprobó la llamada "PROPUESTA DE ACUERDO PARA SU TOMA EN CONSIDERACIÓN EN LA JUNTA DE PORTAVOCES DEL AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA", DONDE SE APROBÓ:

1. Solicitar a Diputación el cumplimiento de la recolocación de la agroaldea de Astigarraga en los términos planteados en la comparecencia de las Juntas Generales del pasado 17 de febrero.
2. Solicitar a Diputación el inicio de una modificación puntual del Plan General de Astigarraga en la que, además del aparcamiento y usos derivados del mismo se puedan contemplar otros usos de interés para el municipio de esa zona, en el marco de una negociación entre ambas administraciones.
3. Someter el presente acuerdo a la aprobación del Pleno

extraordinario a celebrar el próximo día 25 de febrero.

Ondoren honako hau zehaztu da: 2. puntuan "Foru Aldundiari eskatzea..." jarri beharrean "Udalak aldaketa puntuala martxan jarriko du..." jarri behar duela.

Posteriormente se ha matizado que en el punto 2 en lugar de "Solicitar a Diputación..., debe figurar "el Ayuntamiento iniciará la modificación puntual....".

Alkateak adierazi du Batzorde horretan dagokigun gaiari buruzko Hirigintzako Aholkularitza Juridikoaren txostena aurkeztu zuela eta gainera Txemaren honako iradokizun hau onartu zela: "Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromisoa hartzea udalerri honetako ingurumen-baldintzei eragin diezaiokeen esku-hartzerik gertatzen den kasuan, hilabeteko epean Udal honi berri emateko".

Indica el Alcalde que en dicha Junta aportó el informe de la Asesoría Jurídica de Urbanismo en relación a este tema y además se acepto la sugerencia del Concejal José Manuel Herzog, consistente en "Que la Diputación Foral de Gipuzkoa se compromete a que dentro del plazo de un mes conteste a este Ayuntamiento, siempre que se pueda producir alguna intervención que afecte a las condiciones medioambientales de este Municipio".

Proiektuari dagokionez, alkateak honako hauek adierazi ditu: prentsaren bidez izan zuela Bidegik egikaritu nahi duen jardueraren berri, Foru Aldundiko ordezkariekin bilerak egin zituela eta puntu hori eztabaidatu zen Batzorde Orokorreko bilkuran parte hartu zuela. Horren guztiaren ondorioa honako hau izan da: Foru Aldundiak ez du proiektu hori egikarituko aurretik ez badira Agroaldeako proiektuak birkokatzen (Foru Aldundiak dioenez, Urnietan). Bestalde, adierazi du udalerrirako onura garrantzitsuak atera behar dituela Astigarragak proiektu horren bidez.

En cuanto al proyecto indica el Alcalde que se enteró por la prensa de la actuación que pretende llevar a cabo Bidegi, y que mantuvo reuniones con representantes de Diputación, así como que participó en la sesión de Juntas Generales en la que se trató este punto. De todo ello se concluye que Diputación no hará este proyecto si previamente no se realojan los proyectos del Agroaldea, que por lo que dice Diputación los quieren realojar en Urnieta, y añade que de este proyecto Astigarraga debe de sacar grandes compensaciones para el futuro de este Municipio.

Carlos de la Peña zinegotziak Juan Joxeri galdetu dio noiztik zuen proiektu horren berri eta hark erantzun dio Behemendirekin hitz eginda jakin zuela duela urtebete, baita urte honetako urtarrilean Buenaventurarekin izandako

El concejal Carlos de la Peña, pregunta a Juan Joxé desde cuando tiene noticias de este proyecto y contesta que tuvo conocimiento verbal hace un año a través de Behemendi, y de la

kokapenerako negoziazioan ere. Carlos de la Peña zinegotziak aurreratu du bere taldea abstenitu egingo dela "proiektu hori abiatu besterik ez delako egin".

negociación del emplazamiento con Buenaventura en enero de este año. El concejal Carlos de la Peña anuncia que su grupo se va a abstener dado que "el niño todavía está en pañales".

Jose Angel Sanchezek hartu du hitza eta adierazi du 2009-12-17an berri hori prentsan irakurri zuela, hainbat dei egin zituela eta otsailaren 4an Batzar Nagusietan ENBA, baserritarren elkartearekin bildu zela. Gobernu-taldeak oharra atera du eta Bidegiko Kontseilua egin da. Kontseilu horretan talde politiko guztiek garraio hiriaren proiektuari babesa eman zioten. Aurretik konpondu beharreko gai bat dago, hau da, agroaldeari beste kokapen bat bilatzea, eragindako nekazari guztiak birkokatzeko. Data nagusi bat dagoela adierazi du, hots, 2009-12-17a; izan ere, data horretan Hirigintzako Batzordeko galde-eskeen barruan berak egindako galdera bati Zorionek erantzun dio bi alternatiba daudela, Etxegarate edo Astigarraga.

Interviene Jose Angel Sanchez indicando que el 17-12-2009 lee la noticia en prensa, realiza distintas llamadas y el 4 de febrero se reúne en Juntas Generales con la asociación de baserritarras ENBA. Ha habido nota del equipo de Gobierno, y se ha celebrado el Consejo de Bidegi, en la que todos los grupos políticos manifestaron el apoyo al proyecto de ciudad del transporte. Señala que hay un tema previo a resolver que es el buscar nueva ubicación para el agroaldea y se reubique a todos los agricultores afectados. Hay una fecha clave que reseña que ese l 17-12-2009, que en la Comisión de Urbanismo en ruegos y preguntas a una pregunta suya contesta Zorione que hay 2 alternativas o Etxegarate o Astigarraga.

Jose Manuel Herzog zinegotziak adierazi du Foru Aldundiak gai horretan eraman duen kudeaketa ezin txarragoa izan dela. Foru Aldundiak izan duen obskurantismoa ezin da onartu, prentsan ere atera baita.

Interviene el concejal Jose Manuel Herzog quien señala que la gestión de Diputación en este tema ha sido pésima. No puede hacer oscurantismo como ha hecho Diputación, saliendo en prensa como ha salido.

Ondoren, alkateak Bozeramaileen Batzarrean onartutako proposamena aurkeztu du onar dadin. Proposamenenari, honako zehaztasun hauek erantsi zaizkio: alde batetik, Jose Manuel Herzog zinegotziak egindakoa, hau da, **"Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromisoa hartzea udalerri honetako ingurumen-baldintzei eragin diezaiokeen esku-hartzerik**

A continuación el Alcalde somete a votación la Propuesta aprobada en la Junta de Portavoces, con la matización incorporada por el concejal Jose Manuel Herzog **"Que la Diputación Foral de Gipuzkoa se comprometa a que dentro del plazo de un mes conteste a este Ayuntamiento, siempre que se pueda producir alguna intervención que afecte a las condiciones medioambientales de**

**gertatzen den kasuan, hilabeteko epean Udal honi berri emateko" eta bestetik, 2. puntuari dagokiona, hau da, Udalak aldaketa martxan jarriko duela dioena...**

Bozketa egin ondoren, onartu egin da 3 abstentziorekin (2EB-B, 1PSE-EE) eta gainerako taldeen aldeko botoekin.
Boto-azalpenean, Carlos de la Peña zinegotziak adierazi du bere abstentzioaren arrazoiak honako hauek direla: proiektua abiarazi besterik ez dela egin eta baserritarren gaia erabaki gabe dagoela.

**este Municipio", así como la matización al punto 2, indicando que el Ayuntamiento iniciará la modificación,.....**

Sometida a votación con 3 abstenciones (2EB-B,1PSE_EE) y el voto favorable del resto se aprueba la propuesta.
En la explicación de voto el concejal Carlos de la Peña indica que su abstención es porque el niño está en pañales y el tema de los baserritarras está sin cerrar".

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2010eko otsailaren 25ean

**Xabin Olaizola Lasa**
**Idazkari kontu-hartzailea**

Astigarragako Udala